

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

835

AGINDUA, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bateginaren 1.2.i) artikulua ezartzen duenez, laguntzen eta dirulaguntzen araubide orokorra Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaia da. Era berean, 2. artikuluan 1., 3. eta 5. paragrafoetan, erregelamendu-eskumena esleitzen dio, oro har, ogasun eta finantza arloan eskumena duen saileko sailburuari, eta 50.3 artikuluan, berriz, kontrol ekonomikoaren arloan eskumena duenari, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeko baldintzak egiaztatzeako prozedurari eta zehaztapenari dagokienez.

1991ko urriaren 7ko Agindua, Ogasun eta Finantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan dirulaguntzak eskuratu dituztenek zerga mailako obligazioak bete dituztela egiaztatzeari buruzkoa, da agindu honen aurrekaria. Hainbat aldiz eguneratu eta egokitu da agindu horretako eranskinean bere aplikazio-eremutik kanpo geratzen diren dirulaguntzei eta laguntzei buruz xedatutakoa. Aldaketa horietako azkena Ogasun eta Herri Administrazioari buruzko 2006ko ekainaren 19ko Aginduaren bidez egin zen –Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren pentzutan dirulaguntzak eskuratu dituztenek zerga-mailako obligazioak bete dituztela egiaztatzeari buruzkoa zen–.

Bestalde, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta lege horren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak araudi osoa (eta alderdi batzuetan oinarritzakoa) jasotzen dute honako arlo hauei buruz, besteak beste: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzea, bai eta dirulaguntza publikoen esparruan hala pertsona zein erakunde eskatzaileek edo onuradunek nola erakunde laguntzaileek dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzea ere. Hori dela eta, komenigarria da egokitzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremuko egungo araudia, 38/2003 Legearen 22. xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera. Xedapen horrek ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuan eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betez aplikatuko dela 38/2003 Legea Euskal Autonomia Erkidegoan.

Testuinguru horretan, egokia da adierazitako arlo horretan araudia berriro eguneratzea eta egokitzea, esplizituki jasotzeko Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egiaztatu beharra, eta bai, halaber, baldintza hori laguntzen eta dirulaguntzen kudeaketan parte hartzen duten erakunde kolaboratzaileei ere ezartzeko; izan ere, orain arte, orain arte, haien onuradun diren subjektuei lotutako zerga-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeari buruzko aipamenak baino ez dira jasotzen.

Hori dela-eta, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen bidez, honako hau arautu nahi da: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntza eta dirulaguntzen esparruan pertsona zein erakunde eskatzaileek edo onuradunek eta erakunde kolaboratzaileek bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko modua.

2. artikulua.– Zerga-betebeharrak betetzea.

1.– Pertsona zein erakunde eskatzaileek edo onuradunek eta erakunde kolaboratzaileek zerga-betebeharrak egunean dituztela joko da, baldin eta honako baldintza hauek guztiak betetzen dituztela egiaztatzen bada:

a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren autolikidazioak aurkeztu izana.

b) Konturako ordainketak egiteko zerga-betebeharrei dagozkien autolikidazioak eta urteko aitortenaren laburpena aurkeztu izana.

c) Balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioak, urteko aitortenaren laburpena eta, horrela badagokio, Europar Batasunaren barruko eragiketak biltzen dituen aitopena aurkeztu izana.

d) Zergei buruzko araudi orokorrean araututako informazioa emateko betebeharra betetzeko oro har eskatutako aitopenak aurkeztu izana.

e) Estatuko, autonomia-erkidegoko edo foru-aldundietako administrazioekin zerga-zorrik edo -zehapenik ez izatea epe exekutiboan. Salbuetsi egingo dira geroratuta, zatikatuta edo etenda dauden zerga-zorrik edo -zehapenak.

f) Epaia irmo bidez herri-ogasunaren aurkako delitutzat jotzen diren egintzen ondoriozko erantzukizun zibilak ordaindu gabe ez izatea.

2.– Aurreko paragrafoko a), b), c) eta d) apartatuetan adierazitako inguruabarrak zerga-istantzia eskudunari egiaztatzeko eskabidea egin aurreko hilabetearen aurreko hamabi hilabeteetan aurkezteko arauzko epea iraungita daukaten aitopen eta autolikidazioei buruzkoak dira.

3. artikulua.– Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea.

Pertsona zein erakunde eskatzaileek edo onuradunek edo erakunde kolaboratzaileek Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela joko da, ez badute harekin zorrik kuotengatik edo batera biltzen diren kontzeptuengatik, kotizatzeke betebehar horiek ez betetzearen ondoriozkorik edo Gizarte Segurantzarekiko beste edozein zor publikorik, salbu eta zorrik geroratuta badaude, konkurtso-hitzarmen edo hitzarmen berezi baten bidez erregularizatuta, luzamenduan edo ordainketa etetea erabaki bada zor horiek aurkaratu direlako.

4. artikulua.– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak betetzea.

1.– Pertsona zein erakunde eskatzaileek edo onuradunek, edo erakunde kolaboratzaileek dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean dituztela joko da, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein erakunderekin dirulaguntzak itzultzearekin lotutako zorrik

ez badu epe exekutiboan, edo, premiamendu-bidea ezarri ezin zaien pertsona edo erakundeen kasuan, borondatezko epean ordaindu gabeko zorrik ez badute.

2.– Era berean, pertsonak edo erakundeek dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharren ordainketak egunean dituztela joko da, baldin eta zorrik zatituta edo geroratuta eta bermatuta badaude edo, itzulketaren ebazpena aurkaratu izanagatik, zorra etetea erabaki bada.

5. artikulua.– Betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke unea.

1.– Pertsona eta erakunde eskatzaileek laguntza edo dirulaguntza emateko proposamena egin aurretik egiaztatu beharko dute betebeharrak betetzen dituztela. Betebehar hori betetzen jarraitu beharko dute, gutxienez, dagokion laguntzaren edo dirulaguntzaren azken ordainketa egiaztatzen den arte, gutxienez, bete beharko dituzte betebehar horiek.

2.– Erakunde laguntzaileek betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute erakunde laguntzaile izendatu baino lehen, eta, nolana ere, lankidetzaren bideratuko duen hitzarmena formalizatu aurretik edo lankidetzaren kontratu administratiboa esleitu baino lehenago.

3.– Egoitza fiskala atzerrian duten pertsona eta erakunde eskatzaileek egoitza fiskalaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, bizi diren herrialdeko agintari eskudunek emana.

6. artikulua.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeke modua.

1.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeke, hurrenez hurren zerga-organo eskudunek edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko dira.

2.– Espedientea kudeatzen duen organoak zuzenean eskatuko dizkie dokumentu horiek organo eskudunei, elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez.

3.– Deialdi publikoen oinarri arautzaileek espresuki jasoko dute aurreko paragrafoan adierazitakoa, bai eta pertsona edo erakunde interesdunak aurka egin diezaiokeela organo kudeatzaileak inguruabar horiek zuzenean egiaztatzeari. Aurka eginez gero, pertsona edo erakunde interesdunak berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

4.– Laguntzak eta dirulaguntzak emateko deialdi publikorik gabeko prozeduretan, organo kudeatzaileak betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke modua zein den jakinaraziko die proposatutako pertsona edo erakunde onuradunei, agindu honetan ezarritakoaren arabera.

5.– Laguntzak edo dirulaguntzak kudeatzeko erakunde kolaboratzaileak izendatzeko edo hautatzeko prozesuetan, artikulua honetan adierazitako arauak era berean aplikatuko dira.

6.– Pertsona edo erakunde eskatzaile zein onuraduna edo erakunde kolaboratzailea ez badago behartuta agindu honen 2. eta 3. artikuluetan zerrendatutako aitorpenak edo dokumentuak aurkeztera, edo ez badagozkio artikulua horietan aipatzen diren betebeharrak, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da betebehar horiek betetzen dituela.

7. artikulua.– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke modua.

1.– Kasu bakoitzean, pertsona edo erakunde eskatzaile zein onuradunaren edo erakunde laguntzailearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak betetzen direla.

2.– Erantzukizunpeko adierazpenak agindu honen 4. artikuluan adierazitako irismena izan beharko du, eta, emandako laguntza edo dirulaguntza osoa justifikatzeko unera arte baldintza horretan aldaketaren bat gertatzen bada, adierazpena egiten duen pertsona edo erakundeak horren berri eman beharko du.

8. artikulua.– Egiaptapen sinplifikatua.

1.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla egiaztatzeko ziurtagirien orde, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, honako kasu hauetan:

a) Deialdian eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoa gehienez ere 5.000 eurokoa bada jasotzaileko eta urteko.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan izendapen bidez emandako dirulaguntzak.

c) Terrorismoaren, polizia-indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimetzako dirulaguntzak, baita biktima horiei laguntzeko elkarreentzako dirulaguntzak ere.

d) Ezohiko kalteak ordaintzeko laguntzak eta dirulaguntzak.

e) Etxebizitzak birgaitzeko familiei eta jabeekideen erkidegoei emandako laguntzak eta dirulaguntzak.

f) Besteren konturako langileei zuzendutako enplegua sustatzeko laguntzak eta dirulaguntzak.

g) Praktikak, prestakuntza, ikasketak edo ikerketa-proiektuak finantzatzeko programetan pertsona fisikoei emandako bekak, laguntzak eta dirulaguntzak.

h) Gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta haien federazio, konfederazio edo taldeei ematen zaizkien dirulaguntzak.

i) Zientzia-, arte- eta kultura-jarduketak edo gizarte-interesekoak sustatzeko emandako sariak.

j) Finantza-erakundeekin egindako lankidetzak-hitzarmenen bitartez kudeatutako laguntzen eta dirulaguntzen interes-tasen ordainketak, laguntzak eman diren urtearen hurrengoetan.

2.– Erantzukizunpeko adierazpenean, izenpetzen duenak adieraziko du, bere erantzukizunpean, egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, agindu honetan jasotako moduan, eta konpromisoa hartzen duela betebeharrak betetzen jarraitzeko, emandako laguntza edo dirulaguntza osoa justifikatu arte.

3.– Aurreko apartatuan adierazitakoari kalterik egin gabe, dirulaguntza ematen duen organoak betebeharrak betetzen direla egiaztatu ahal izango du.

4.– Laguntza edo dirulaguntza osoa justifikatu arte adierazpenean egoera edozein aldaketa gertatzen bada, nahitaez jakinarazi beharko du izenpetzen duen pertsonak edo erakundeak.

9. artikulua.– Salbuestea.

1.– Oinarri arautzaileek –edo dirulaguntza emateko erabakiak, deialdi publikorik ez badago–, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete izana egiaztatetik salbuetsi ahal izango dute, dirulaguntzaren izaera dela-eta, baldin eta interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuak badaude, ogasunaren arloan eskumena duen sailak alde aurretik adostasuna adierazten badu.

Espedientean, salbuestea eragin duten inguruabarrak betetzen direla egiaztatu beharko da, justifikazio arrazoitu baten eta dokumentu-memoria baten bidez, eta, horrez gain, neurriak ez diela eragiten objektibotasunaren, diskriminaziorik ezaren, ezarritako helburuak eraginkortasunez betezearen eta baliabide publikoak efizientziaz esleitzearen eta erabiltzearen printzipioei.

2.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko eskakizuna ez da aplikatuko Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko autonomia-, foru- edo toki-erakunde edo -instituzioei, Euskal Herriko Unibertsitateari eta erakunde horietako batek edo batzuek gehiengo-partaidetza duten erakundeei soilik zuzendutako dirulaguntzen deialdi edo erabakietan.

3.– Ogasunaren arloan eskumena duen sailak, kasuan kasuko dirulaguntzaren edo laguntzaren izaeraren arabera, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatu beharretik salbuesi ahal izango ditu dirulaguntza araubide bakar eta partikularizatuan jasotzen duten pertsona edo erakunde jakin batzuk; banakako espediente bat izapidetuko da horretarako. Salbuespen hori ezin izango da hirugarrenen kalterako izan, emateko prozedura edozein dela ere, eta pertsona edo erakunde horien zerga-egoera eta Gizarte Segurantzarekiko egoera erregularizatzearen baldintzapean jarri ahal izango da, dagokion salbuespen-egintzan zehazten den moduan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.– Arauak indargabetzea.

Indargabeturik geratzen dira agindu honetan ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak eta, bereziki, Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzutan dirulaguntzak eskuratu dituztenek zerga mailako obligazioak bete dituztela egiaztatzeari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 13a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.